



■ KRONIKA-BERRIAK

Azken eguna saridunak azaltzeko

Gabonetako saskien irabazleek gaurkoa dute azken eguna Kronikara deitzeko. Saridunak: 0540 (Ikusi Makusin saldua), 0009 (Keran saldua), eta 0170 eta 0183 (Dorronsoron salduak). Irabazleak azaltzen ez badira, berriro egingo da zozketa, errifak Kronikara ekartzen dituztenen artean. ||

■ ZINEA

Bi pelikula asteburuan

Helduentzako *Escobar. Paraiso Perdido* jarriko dute Biterin: gaur eta bihar 22:30etan; etzi 19:30etan eta astelehenean 16:30etan. Umeentzako, *Dixie eta matxinada zontzia* jarriko dute, bihar eta etzi 16:30etan. ||

■ GABONAK

Ipuinak, zinea eta haur txokoa, gaur

Haur txokoak antolatu ditu Iturritxo elkarteak gaurko eta biharko, 10:30etatik 13:00etara. Portu auzoan, berri, pelikula jarriko dute 18:00etan, nagusientzako, eta Gibelalde elkartearen Apaxi ipuin kontalariak saioa eskainiko du 18:00etan. ||

■ HAIDA ROCK

Lehiaketa azken txanpan

Haida tabernako Banda Lehiaketa bukaerara iristen ari da; *Koyotito Mamita Tequila Cactus* taldeak joko du gaur, (23:00-24:00). Sari banaketa bihar egingo da. ||

■ GURE ESKU DAGO

Kriseiluak salgai

Ametzen Kriseiluak 2 eurotan erosi daitezke Gure Esku Dagoren lokalean. Abenduaren 31n botako dira zerura. ||

■ ERREGE KABALGATA

Trajeen banaketa

Errege Kabalgatan aterako direnek astelehenean jaso behar dituzte paje trajeak, 17:00etatik 18:00etara Biterin. ||

■ PRESO ETA IHESLARIEN SENIDEAK

Dispertsioaren kontra, osatu zapi-katea

Iluntzeko 20:00etan zapi katea osatzeko deia egin dute senideek, Andre Kale eta Kale Nagusia lotuz. Igandean, berriz, Martuteneko espetxera martxa egingo da, 11:30etan Zinkoeneatik aterata.

HILEKO azken ostirala da gaurkoa, eta Hernaniko preso eta iheslarien senideek ekin-tza berezi bat prestatu dute: zapi-katea osatzeko deia luzatu dute, iluntzeko 20:00etan, Kale Nagusia eta Andre Kale lotuz.

Aurreko ostegunean mozi-
oa aurkeztu zuten senideek,

presoen egoera azaltzeko eta haien eskubide guztiak errespetatuak izan daitezela eskatzeko. Hori lortzeko politikarrien konpromisoa eskatu zuten. Era berean, herritarrei ere dei egin zieten gaurko eta datozen ekintzetan parte hartzeko. «Urtero bezala gabonak heldu dira, eta gure senide

presoak Euskal Herritik oso urruti ditugu, urrutiegi. Dispertsioak gabonetan ere errepidean jartzera derrigortzen gaitu, eta gure bizitza arriskuan jarri beharrean gaude».

Igandean Martutenera; urtarrilaren 10ean Bilbora
Bestalde, igandean, hilak 28

Martuteneko kartzelara martxa antolatu da, 11:30etan Zinkoeneatik abiatuta. 12:30etan ekitaldia egingo da espetxean bertan. Hernaniko Sortuk ere bertara joateko deia luzatu du.

Azkenik, urtarrilaren 10ean Manifestazio Nazionala egingo da Bilbon, 17:30etan hasita, *Dispertsioari Stop* lemapean. ||

■ BERTSOLATA

Bertsoek goxatuko dituzte datozen egunak

Bertso Jaialdia izango da bihar, 19:30etan Biterin. Puntako 6 bertsolari ariko dira bertsoan. Sarrerak bertan jarriko dira salgai. Bestalde, hilaren 30ean Fernando Amezketarrari buruzko saioa izango da.

MAIALEN Lujanbio, Amets Arzallus, Sustrai Colina, Nerea Elustondo, Arnaitz Lasarte eta Jexux Mari Irazu ariko dira bihar bertsoan, 19:30etan hasiko den Bertso Jaialdian. Gai-jartzaile lanetan, berriz, Agin Laburu ariko da. Sarrerak Biterin bertan jarriko dira salgai, emanaldiaren aurretik.

Fernando Amezketarra, 250 urte

Gabonetako Bertsolataren barruan izango da ekitaldi gehiago. Asteartean emanaldi berezia eskainiko dute Eñaut Agirrek, Aitor Atxegak eta Imanol Kamiok. Fernando Amezketarra izango dute gaia, 19:00etan Biterin hasita.

Urte Zaharreko erronda

Hilaren 31n, berriz, errondan aterako dira urtero bezala. 17:15etan jarri dute zita, udaletxeko arkupeetan. ||



Iaz bezala, biharko jaialdian ere puntako bertsolariak entzuteko aukera izango da, hernaniarrak tarteko.

**ANTZIOLA**
OKINDEGIA

ANTZIOLA, 3
Tel. 943 55 17 91
HERNANI

JOXE MARI
EDARITEGIA
FIDELTASUN TXARTELA

Asteleheneetik ostiralera 10 kafe hartuta, 11garrena doan dsukuzu. Gainera, zure bonoa betetzear, zozketan parte hartuko duzu:

ASTEBURU BAT
DEBAKO AISIA SPAN

Kale Nagusia, 7
943 55 00 32

VGALDETXXO
Jatetxea

BAZKARIAK
ETA
AFARRIAK

Ereñozu auzoa
20120 Hernani (Gipuzkoa)
Teli: 943 55 02 40

tripontzel
taberna

PINTXOKIN
BAZKARIEK
ENTSELUKIN

BOHATZAK
PLATER
MONBINETOKIN

ZATOK
DASTATZERA!

Kardaberaz kalea, 11 • HERNANI
943 555 724

☎ TELEFONOAK • TAXIAK: 943 550093 • UDALTZAINGOA: 092 • DYA: 943 464622
 • AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
 • ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 • JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103
 ☩ FARMAZIAK • Egunez: Castilla Urbietan 7 943 552941 • Gauez: Aizpuru Latsunbeberri 11 943 336077

EGURADIA **GAUR** Eguraldi aldakorra. Lainoak eta urdinguneak tartekatuko dira, eta euri pixka bat ere egin lezake. Tenperaturan ez da aldaketarik izango. Min.9°/Max.12°

BIHAR Lainoak izango dira nagusi, eta euria egingo du, batez ere, eguerditik aurrera. Arratsaldean haize bolada zakarrak izango dira. Min.7°/Max.13° (euskaime)

PELOTA EUSKAL FEDERAZIOA

Mexiko eta Euskal Selekzioa lehian igandean, kiroldegian

Etzi arratsaldeko 17:30etan jokatuko da partidua, kiroldegiko frontoian. Sarrerak doan eskuratzeko azken eguna gaurkoa da, kiroldegiko bulegoan.

MUNDUKO Pelota Txapelketa-ko irabazlea, Mexiko, Hernanin izango da bihar, Euskal Selekzioaren aurka jokatuko. Pelotari hernaniarrak ere ariko dira jokoan: Paul Ojuel, Amaia Irazustabarrena eta Ariane Arrieta.

Euskal Pilota Federazioak Hego Euskal Herrian antolatut

dituen lau partiduetan aurrenekoa izango da. Bizkaian, Araban eta Nafarroan jokatuko dira jarraian, Euskal Selekzioaren ofizialtasuna aldarrikatzeko.

Sarrerak doan lortzeko aukera, gaur

Hernaniko Udalak hainbat

sarrera eskuratu ditu, bereziki, pelotazale gaztetxoenei oparitzeko. Gaurkoa da sarrera horiek doan lortzeko azken eguna. Kiroldegiko bulegotik pasa behar da, 09:00etatik 13:00etara. Gehienez, 2 emango zaizkio bakoitzari. Bestalde, 10 eurotan erosi daitezke, Txili, Onddi eta Zintzarrin. ||



AMHER

Urte Berri On denei!

Larunbatean egindako Gabonetako festan ederki pasa zuten Amher elkarteko kideek; 130 heldu eta 45 gaztetxok. Amherrek eta Afrika, Amerika, Asia eta Europako beste lurraldeetatik etorritako hernaniar berriek Urte Berri Ona opa nahi dute: *دي عسع مراع (aam said/sana saida); Feliz año Nuevo; Bonne année; Happy new year; sumak musuj wata atawsami; Un an nou fericit...* ||

ZIKUÑAGAKO AMA

Tomaxin, Araiaren etxera

Zikuñaga auzoan ere ospatu zuten Santo Tomas eguna; aurtentzen, aurreneko aldiz. Giro ederrean, txistorra pintxo goxoekin gozatu zuten auzotarrek. Hala ere, eguneko protagonista Tomaxin txerrikumea izan zen. Eguna bukatzerako zozketatu egin zuten, eta Araiak eraman zuen Tomaxin etxera. ||



OLENTZERO

Olentzerok ere jaso zituen opariak!

Hernaniarrek harrera beroa egin zioten, asteazkenean, Olentzerori. Plaza bete jende zegoen Olentzero eta Kotonio astoa iritsi zirenean. Kale-bueltaren ondoren, gaztetxoenen eskutizak jaso eta oparitxoak banatzen aritu zen Olentzero. Berak ere jaso zituen muxu goxoak eta opariren bat edo beste! ||



GAZTE TXOKOA

Ginkanan izena emateko azken eguna

Abenduaren 30ean Gabonetako Ginkana egingo da herrian zehar 11 eta 17 urte bitartekoentzat. Arratsaldeko 16:00etan Atsegindetik abiatuko dira, 5 gazteko taldetan. Gaurkoa da izena emateko azken eguna, Gazte Txokoan. Ez dago taldea osatuta eduki beharrik. ||

TXANTXANGORRI ELKARTEA

Ugalde, ehiztari abilena

Abenduaren 14an ospatu zuen Txantxangorri elkarteak ehiza txiki txapelketa, txakurrarekin. Juan Mari Ugalde izan zen irabazlea, 4 pieza botata. Segidan sailkatu ziren: Iñaki Loyarte (3 pieza), Mikel Loidi (3 pieza), Odei Egaña (2 pieza), Ekaitz Cisneros jubenila (2 pieza), Iñaki Mendizabal (2 pieza), Juan Pedro Yeregui beteranoa (pieza bat), Joseba del Valle (pieza bat), Ramon Izagirre (pieza bat) eta Gaspar Loidi (pieza bat). Bestalde, larunbatean Compak Spoting, San Silbestreko plater tiro txapelketa jokatuko da Oartzungo Arkalen. Bertan eman behar da izena, 09:00etatik 10:00etara. ||

EH BILDU

Webgunea herritarren eskura, ekarpenak egiteko

Hernaniko EH Bilduk martxan jarri du 2015-2019 legegintzaldiko lehen tasunak finkatzeko prozesua; Puntuz Puntu dinamika. Hainbat gairi buruz eztabaidatzeko batzar eta mintegiak antolatu dituzte. Era berean, ekarpenak egin eta hauteskunde zerrendetarako hautagaiak proposatu daitezke webgunean (www.hernani-ehbildu.eus), helbide elektronikoz (hernani@ehbildu.net) edota herriko hainbat lekutan jarritako inkestentz bidez (Rioja taberna, Garin...). ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:00ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† **Simon Goicoechea Aramburu**
(Abokatua)

Atzo hil zen, 77 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian Bego -

Emaztea: Conchi Echave; seme-alabak: Gorka eta Marta, Simon eta Esther; anai-arrebak: Mari Tere (Urrun), Mari Trini (Pacharen alarguna), Antonio eta Merche, Jose Miguel eta Teresa, Sole, Tomas (+), Felix eta Isabel, Iñaki eta Begonia; ezkon anai-arrebak: Jose Luis Garcia eta Maria Eugenia Echave; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuet eta arren etor zaitzetzela **GAUR, OSTIRALA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2014ko abenduaren 26an

Helbidea: Santa Barbara, 41.
OHARRAK: Gorputza HERNANIKO ORBEGOZO EHZORZKETA TANATORIOAN egongo da eguerdiko 13:00ak arte.

† **M^a Dolores Aguirrezabala Arizabalo**

Abenduaren 23an hil zen, 81 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian Bego -

Senarra: Ricardo Arrizabalaga; semeak: Pedro eta Azuzena Ostolaza, Ricardo eta Elena Hernandez; biloba: Imanol; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuet eta arren etor zaitzetzela **GAUR, OSTIRALA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2014ko abenduaren 26an

OHARRA: Gorpu-laguntza familia artean izango da.

IRAGARKI MERKEAK

2. eskuko emakume bizikleta erosiko nuke. Deitu: 688 665 045

Alokatzeko 3 gelako etxebizitza beharra daukagu. Deitu: 618 120 340

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, aurikuloterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)